

MARTXOAREN 8A

2022

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

ELKARREKIN eta BORROKAN desberdintasunen aurka



Día Internacional de la Dona Treballadora

Día Internacional da Muller Treballadora

Día Internacional de la Mujer Trabajadora

Día Internacional de la Mujer Trabajadora



Lanaren Konfederakunde Nagusia



Emakumeak horrela aurkitzen aurkitzen gara, bereziki azken mendeetan, Elkarrekin eta Desberdintasunen aurka Borrokan, **gure askapenerako, humanismo integral baten, berdintasuneko gizarte baten, justizia sozialaren, demokrazia zuzenaren eta askatasun solidarioaren alde elkartuta eta borrokan**; Emakume Askeak mugimendu anarkistaren ildotik.

Emakumeak, anarkofeminismoak eta egungo mugimendu feminista integratzaile guztiak, **urte asko borrokan daramatzagu etsaiak eragiten digun sufrimendua jasanezina delako**. Alor fisikoa, psikologikoa eta etikoa hartzen dituen sufrimendua; **bizitza politikoaren, publikoaren, lanekoaren, sozialaren, ekonomikoaren, pertsonalaren, afektiboaren, sexualaren, kulturalaren, hezitzailearen, sortzailearen...maila guztietan eragiten diguna**.

Aurre egiten ari garen etsaia oso indartsua, polifazetikoa eta erasokorra da. Hura garaitzea, gizartearen erabateko aldaketa lortzea esan nahi du; gizaki guztion erabateko berdintasunean, askatasunean eta justizian oinarritutako gizarte berri bat eraiki izana.

Etsai hori patriarkatua deitzen da, ia betidanik esistitu izan da, hainbat itxurekin mozarrotu izan da, aliantza zabalak izan ditu eta ideologia politiko, sozial eta ekonomiko askotaz baliatu izan da haren helburu handia den gizonezkoek emakumearen gainean gauzatutako nagusitasuna iraunarazteko; arrazakeriak, xenofobiak eta kolonialismoak babestutako eta erreakzioanarioekin, zapalketarekin, neoliberalismoarekin eta supremazismo autoritarioarekin, totalitarismoarekin eta ukatzailearekin bat eginda, haren gizarte matxistaren, sexistaren eta androzentrikoaren oinarriak sortzen.

Baina aliatuetariko batekin **bereziki identifikatzen bada hori kapitalismoa** da. Biak, kapitalismoa eta patriarkatua, batak zein besteak, haien artean elikatzen dira, gaur sufritzen jarraitzen dugun egungo gizartea desberdintasunen gizartea izan dadin.

Gizarte honetan, desberdintasunik handiena emakumeok gizonen aurrean jasaten duguna da. **Diskriminazioa, estorsioa, gehiegikeria, mespretxua, zapalketa, bazterketa...aukera berdintaunean; bisibilitate publikoan; erantzunkizun eta kudeaketa postuetarako sarbidean; garapen profesionalan; soldaten eta pentsioen bidegabeko arrakalan; etxeko eta zaintza lanen banaketa desorekatuan; esplotazio merkantilistan eta objektualizazio sexualean**.

Erakunde anarkosindikalista gisa, CGT-LKNrentzat, martxoaren 8a Emakume Langilearen nazioarteko Eguna izaten jarraitzen du, ezberdintasunen gizarte klasista honetan, langilegoa esplotatua delako eta zapalkuntza hori emakume langileari dagokionez biderkatu egiten delako.

Emakume eta emakume langile moduan hau da gure borroka; borroka feminista, anarkofeminista, inklusiboa, bateratua, zeinetan emakume izateaz, norbanakoaren nortasunaz zein generoaz izan daitezkeen ikuspegi guztiak eta Trans zein Lgtbiq+ mugimenduak sar daitezke... gure borrokak **justizia sozialean eta askatasunean, gizonen eta emakumeen arteko erabateko benetazko berdintasunean oinarritutako iraultza sozial integral bat eta gizarte antikapitalista eta libertarioa, zapal dutako emakumerik gabeta eta baztertutako gizakirik gabeta planteatzen ditula** esan nahi du.